



SAGASTI EDER PRINTZESA
ETA GRANADAKO BOABDIL

KOLDO IZAGIRRE



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

KOLDO IZAGIRRE

Sagasti eder printzesa eta Granadako Boabdil

topaketa latzak eta kantu gozoak dituen fartsa ikaragarria
Intxaurrondo auzorako

LEHENENGO TOPAKETA

auzotarra 1
auzotarra 2
sukaldaria
karrosa (aulki pirriladuna), taxi lanak egiteko

Sukaldaria, emakumezkoa da
Auzotarra 1, tarteka, beti eskuan edukiko dituen pala eta erratza baliatuz,
zikinkeria ikusezinak biltzen arituko da.

Behar izanez gero,
aldian behin karrosa (aulki gurpilduna) azalduko da
auzotarra 1ek bildutako zabor ikusezina biltzera

ABESBATZA

(Xenpelarren Iparragirre abila dela...)

Heldu da eguna, heldu da ordua
dastatzeko intxaur fartsa
natarik ez du baina badauka
pipermina eta gatza.
Zatoz gure plazara
damutuko ez zara
alai zazu aurpegia:
algara batek bereizten ditu
gezurra eta egia.

Jendea marmarka, ez dator inor... bateren baten zain daude aktoreak!
Auzotarra 1 eta Auzotarra 2 batera eta bestera...
Karrosakoak ere bai, argazkiak ateratzen eta abar...
Telefonoak erabili...

AUZOTARRA 1

Koberturarik ez!

AUZOTARRA 2

Koberturarik ez, hemen? Nola ez dugu edukiko koberturarik plaza agerian!

AUZOTARRA 1

Hemen bai! Santimaminen daude koberturarik gabe!

AUZOTARRA 2

Santimaminen?

AUZOTARRA 1

Azpi horretan!

Telefono batek jotzen du. Norena ote den, konfusioa.

AUZOTARRA 1

Egunon bai! Non zaude ba? Non?

Oihu batzuk jendearen atzetik, metroaren sarreran

SUKALDARIA

Hemen naiz! Hemen! kaixo, morroiok!

Badator jokalekura.

Bere lanbideko jantzian, kapelu eta guzti.

Laban handi bat dakar gerrian, Donostiako danborradako zurezko tresnen estilokoa.

SUKALDARIA

Brrr! Hotza egiten duela azpi horretan!

AUZOTARRA 2

Santimaminen hotz handiagoa egiten zuen, gogoratzen zara?

SUKALDARIA

Ni ez nintzen Santimaminen bizi, ni Landarbason bizi nintzen.

AUZOTARRA 2

Euskaldun epela!

SUKALDARIA

Intxaurrak behar ditut.

AUZOTARRA 1

Leku ederrera azaldu haiz...

SUKALDARIA

Intxaur naturalak, biointxaurrak, eta jator esateko, "Intxaurrondoko intxaurrak".
Adarretik mahaira.

AUZOTARRA 1

Hemen, egia esan...

AUZOTARRA 2

Hemen adarrak egongo dira nonbait, baina...

SUKALDARIA

Hau ez al da Intxaurrondo?

AUZOTARRA 1

Hego Intxaurrondo edo Polloegaina.

SUKALDARIA

Ez zait interesatzen Polloe.

AUZOTARRA 1

Txurkoeneko baratzea. Baratze hobeagorik!

SUKALDARIA

Hezurak eta haragi ustela...

AUZOTARRA 1

Baita harrak ere, Txinan harrak jaten dituzte

SUKALDARIA

Emeak ere bai. Kontuz mingain hori!

AUZOTARRA 1

Beste zerbaite asmatu beharko duzu, hemen ez dago intxaurrek.

SUKALDARIA

Tira, ikus ditzagun intxaurrondo horiek! Intxaurrondoak edukiko dituzue
Intxaurrondon, ezta?

AUZOTARRA 1

Trenak jan zituen Intxaurrondo zaharrea.

SUKALDARIA

Ez da posible!

AUZOTARRA 1

Eta Hego Intxaurrondon genituen apurrak metroak jan ditu. Zuztarretik gainera. Hain
zuztar luzeak zeuzkaten intxaurrondo haiek... Batere gabe utzi gaituzte.

SUKALDARIA

Hau miseria, hau miseriaren beltza, hau bertsolaritzaren miseria!

AUZOTARRA 1

Sukaldaritzaren miseria esan nahiko zenuen noski.

SUKALDARIA

Nola, zer duzu zuk gure kontra?

AUZOTARRA 1

Entzun, sukaldari anderea: hainbeste injustizia pairatu behar izan dugu...

AUZOTARRA 2

Intxaurretaraino gaude!

AUZOTARRA 1

Hemen ez da arazoa konponduko gillotina bat jartzen ez badugu.

SUKALDARIA

Hummm! Interesgarria. Sukalde tresna interesgarria izan liteke gillotina.

AUZOTARRA 1

Gillotina hementxe, plaza honetan bertan!

ABESBATZA 40"

(Iparragirrereren Zibilak esan naute...)

Ogiak mantentzen du
anitz lepegizen
gure kalte askoren
zuztarra hori zen.
Laster dugu ekarriko
Andre gillotina
botikarik onena
kentzeko zotina!

gillotina aipatutakoan, telefonoa hartu eta :

AUZOTARRA 1

Aloh? Robespierre, sil bu plé?

Telefonoa tapatuz, jendeari:

Asanbladan dago, hau beti dago asanbladan.

Telefonotik, ozenki, batetik bestera mugituz:

Robespierre? Içi Prakagorri! Pra-ka-gorri. Hi, edukiko duzue hor nonbait gillotina zaharren bat... Nola? Denak okupatuak? ... Beraz, ez duzuela iraultza esportatu nahi ... E, guk ongi ordainduko genuke: jeke bat espero diagu laster, finantzatuko digula esan ziguk... Iraultza finantzatu, bai ... Ongi, iraultza herrialde bakarrean orduan ... Troskista, ni? Hi estalinista! ... Aditu al duk? Aditu al duk? ... Robespierre? Robespierre? Robes...

Publikoari:

Lepoa moztu diote! Lepoa moztu diote Robespierre!

SUKALDARIA

Teknika handia behar da horretarako.

AUZOTARRA 1

Behar dena, gillotina da.

SUKALDARIA

Utziko al zenidake segapotoa faborez? Dei bat egin behar dut.

AUZOTARRA 1

Ezin dizut utzi, ez dakizu nola gauzkatzen orain!

SUKALDARIA

Nola zauzkate orain?

AUZOTARRA 1

Ez digute laneko telefonotik dei partikularrik egiten uzten. Pentsa, oportetara ere ezin ditugu eraman. Izugarrizko murrizketak.

SUKALDARIA

Murrizketak, esadazu niri! Jenero eskasian daude maila goreneko platerak. Horregatik nago hemen.

AUZOTARRA 1

Eta gaueko txandan gaketu egin dizkigute orrialde beroetako sarrerak Interneten.

SUKALDARIA

Halakorik! Gaez egiten duen hotzarekin!

Publikoari:

Gizonezkoak...! Ez bururik ez buztanik!

AUZOTARRA 1

Esan dizugu, gillotina jarri behar dugu plaza publikoan.

SUKALDARIA

Kontaktu asko al daukazu Frantzian?

AUZOTARRA 1

Zu... zu espioitzan zabilta, ezta?

SUKALDARIA

Beharko! Konpetentzia izugarria daukagu sukaldariok. Badakizu, lehia-kor-ta-su-na...

AUZOTARRA 2

Gillotina lau turnotan gelditu gabe Sagasti Ederren!

SUKALDARIA

Sagasti Eder?

AUZOTARRA 1

Plaza honen izena.

SUKALDARIA

Ikustagun... Aizu, zuhaitz hauek ez dira sagarrondoak!

Badoa sasi zuhaitzetara, hartzen du fruitua, probatzen du.

Tu egiten du, eztulka hasten da...

AUZOTARRA 1

Ez, ez dira sagarrondoak.

SUKALDARIA

Sagarrondorik gabeko sagastia, beraz! Interesgarria, sagarrik gabeko sagar tarta, sagarrik gabeko konpotak...

AUZOTARRA 2

Sagarrik gabeko sagardoa...

SUKALDARIA

Sagasti Eder, sagasti alfer!

AUZOTARRA 1

Intxaurrondon bizi gara eta ez daukagu intxaurrik, ez onik ez ustelik. Sagasti Ederren bizi gara eta ez daukagu sagarrik, ez ederrik ez itsusirik.

SUKALDARIA

Hau miseria, hau miseriaren beltza, hau bertsolaritzaren miseria!

AUZOTARRA 1

Sukaldaritzarena esan nahiko zenuen noski?

SUKALDARIA

Eta hura, zer da hura? (eskua kopetan bisera)

AUZOTARRA 1

Koldobika Jauregiren eskultura bat.

SUKALDARIA

Zer eskultura eta zer kultura puntu kom! Zaldiak dira!

AUZOTARRA 1

Dokumentuak ikusi al dizkiezu?

SUKALDARIA

Zer?

AUZOTARRA 1

Izan litezke behorrak.

SUKALDARIA

Zaldiak edo behorrak, hor zaldi-hankak ikusten ditut nik.

AUZOTARRA 1

Izan litezke behor-hankak. Hemen feminista asko dago, ez dakit zu nola ez zaren feminista, emakumezkoa izanda.

SUKALDARIA (kasurik egin gabe, eskulturari begira)

Hummm... Interesgarria, txit interesgarria!

AUZOTARRA 1

Granitozkoak direla esango nuke nik, hanka horiek.

SUKALDARIA

Badakizu? Gustatzen hasi zait auzo hau...

ABESBATZA 40"

(Iparragirrereren Zibilak esan naute...)

Amak esaten zidan
bazkaltzeko ondo
platera bat barbantzu
eta bi mondongo.
Baske, baske, baske, baske
onik non egongo?
Baske Kulinari Zenter
onena Intxaurrondo.

AUZOTARRA 1

Orduan, gustatzen zaizu gure barria?

SUKALDARIA

Nazkagarria iruditzen zait, eta horrek... horrek balio erantsia dauka!

Karrosa jokalekuan barrena saski bat daramala.

SUKALDARIA

Zer ote darama horrek saskian? Garirik gabeko ogia, agian?

AUZOTARRA 1

Zu, geldi hor!

Buru bat ateratzen dute saskitik, buru lepamoztu bat.

SUKALDARIA

Ooooooh!

AUZOTARRA 1

Aaaaaah!

SUKALDARIA

Baina hau...

AUZOTARRA 1

Robespierren burua da... Gizajoa!

AUZOTARRA 2 (publikoari)

Ergela!

SUKALDARIA

Hummmm...! Aizu, lagun, adiskide. gillotina oso makina interesgarria da...

AUZOTARRA 1

Baina ez daukagu, eta ezin dugu inportatu. Frantsesek daukate eskusiba eta ez zaie batere geratzen almazenean. Eta patentea kopiatzeko dirua behar da. Itxaron.

Segapotoa atera, markatzen du, batetik bestera publikoaren aurrean...

Boabdil! Boabdil! Salam aleykum! ... İçi Prakazuri! Pra-ka-zu-ri! ... Ongi, eta zu? ... Ongi, eta zure emazteak? ... Gazteena haurdun? ... Pozten naiz! ... Ongi, eta zure semeak? ... Ongi, eta zure anaia? ... Ongi, eta zure astoa? ... Israeldarrek jan? ... Palestinaren alde hil da gizajoa! ... Bai, noski, noski, israeldarrak gizentzeko! ... Erromes abiatu zarela? ... A bai? ... Ongi, ongi, Alak gida zaitzala basamortuan! ... Baita zuri ere! ... Berdin ...

Publikoari:

Nola arraio etorriko da jekea, astorik gabe?

SUKALDARIA

Begira, nik ordainduko nizuke ondo..., ondo samar alegia, gillotinaren produkzioa.

AUZOTARRA 1

A bai?

Gerrian dakarren labana hartu eta manipulazio batzuk egiten ditu saskian...
Gero, labana gorriturik ateratzen du saskitik, tantaka. Gerrian sartzen du ostera.
Eskuak garbitzen ditu Auzotarra 2k eskaintzen dion urarekin.
Lehortzen ditu karrosakoak eskaintzen dion toilarekin.
Azkenik parsimonia handiz, eskunarru profilaktiko bana janzen du.
Ondoren, eskua saskian sartu eta benetako txekor mingaina ateratzen du.

SUKALDARIA

Robespierren mingain rebozatua intxaur-saltsan!

Auzotarra 1 geldirik, telefono deiak egiten eta batekin eta besterekin hitz egiten.

Eta produktua erakusteko oihu bera errepikatuz ibiliko da jendearen aurrean.

Atzetik Auzotarra 2 doakio, publikoari esplikazio hau eman ez ahapetik:

AUZOTARRA 2

Intxaurrek gabeko intxaur saltsan! Intxaurrendoko intxaur-saltsan!

Badoa karrosa bere saskiarekin, eta haren atzetik doaz Sukaldaria eta Auzotar biak.

Gutziz erretiratu baino lehen:

AUZOTARRA 2

Hau miseria! Hau miseria beltza! Hau bertsolaritzaren miseria!

ABESBATZA 1' 40"

(Emakumezkoak bakarrik, Hegoak ebaki banizkio...)

Ipini banizkio adarrak
senarraren negarrak
kukurruku oilarrak
baina horrela
intxaurrek zizkidan emango
eta nik
ustela nuen jango!

Ipini banizkio adarrak
senarraren negarrak
kukurruku oilarrak
baina horrela
sagarrak zizkidan emango
eta nik
ustela nuen jango!

BIGARREN TOPAKETA

auzotarra 1
auzotarra 2
boabdil

Sukaldaria bazter batean arituko da, mahaitxo batean, janariak manipulatzan.

Tarteka, jesarri egingo da: ura edan, intxaurrak hautsi, antzerkia jarraitu...
Intxaurrak emango dizkie ikusleei, eta bestelako jatenak: mingain errebozatu, esaterako
(Robespierrena, suposatzen da).

Auzotarra 2, lehen egintzan bezala, gauza ikusezinak biltzen ibiliko da erratzarekin eta
palatxoarekin noizean behin.

Jekea, aberastasun ezaugarriak eraztunez eta horrelakoz.

Eraman ditzake eguzkitarako betaurrekoak ere,
noizean behin kopetara eramanez zer edo zer hobeto ikusteko eta abar.

ABESBATZA

(Xenpelarren Iparragirre abila dela...)

Batzuek barre, besteak irri,
hauxe da ikusgarria
mozkortzen ez gaituen sagardo
kentzen dugu egarria.
Hemen dator jekea
bidean zer nekea
andre gazte baten bila:
urriarekin aspertu eta
orain nahi du apirila.

Jendea zain, ez dator inor... bateren baten zain daude aktoreak!
Auzotarra bat eta auzotarra bi batera eta bestera...
Karrosakoak ere bai, argazkiak ateratzen eta abar...
Telefonoak erabili... (lehen egintzaren hasierako urduritasun berdina)
Bitartean aureskua jotzen txistularia, eta dantzaria dantzan.

AUZOTARRA 2

Koberturarik ez!

AUZOTARRA 1

Euskotren defizientziaz betea dago!

AUZOTARRA 2

Agian Zarategitik irten da Sagasti Ederrera etorri gabe!

AUZOTARRA 1

Ez, kartela ipinia dago: Antzerkia hemendik, eta gezi bat marratua Sagasti Ederrera
eskaileretara.

Telefono batek jo du. Norena ote den, konfusioa.

AUZOTARRA 2

Salam Aleykum! Non zaude ba? Non?

Metroaren sarrerarantz abiatzen dira tarrapataka, baina han ez da inor ageri.
Beste aldetik dator Boabdil: itxura bikaina dauka, bere jantzi arabiar dotorearekin.
Benetako jekea dirudi. Lepoan dakar pelestindarren kuffia.

BOABDIL

Jainkoak egun on dizuela!

Lasterka berarengana dantzaria eta txistularia.
Aurreskuaren azkenera heldu da. Berak ere makurtzen du burua, eskertuz.
Poltsa bat ateratzen du, eta poltsatik urrezko txanpon mordoa:
txistulariari eta dantzariari ematen die.
Lore sorta bat ematen diote. Asko estimatzen du Boabdilek.
Ondoren, erregeren tronua balitz bezala, karrotan ibiliko dute.
Publikoan dauden emakumezkoen artean banatzen ditu loreak Boabdilek bere karrosatik,
"Salam Aleykum, emazte maiteok!" koipetsu esanez.
Bitartean, dantzaria, axolagabe, txanponak zabaldu eta barruko txokolatea jaten hasi da.
Txistulariak haserre egiten dio, jendearen aurrean halakorik ez giteko adieraziz.

BOABDIL

Salam aleykum!
Salam aleykum, intxaurrondotarrak!
Salam aleykum!

IKUSLEEK

Salam aleykum!

BOABDIL

Zuek intxaurrondotarrak eta intxaurrek gabe, gu arabiarrek eta petroliorik gabe: zuek
eta gu, intxaurrondotarrak eta arabiarrok, senideak gara, anai-arrebak gara.

AUZOTARRA 1

Baina guk ez daukagu intxaurdolarrik, ez sagardolarrik.

AUZOTARRA 2

Pobre bizi gara, Boabdil. Tristura handian bizi gara.

AUZOTARRA 1

Zorrez beteak gaude.

BOABDIL

Hori ez da posible! Zorrez beteak eta triste! Tristeia, zorrik gabeko bizi da! Kreditu berria eskatu behar zenuke, alaitasun pixka bat izateko!

AUZOTARRA 2

Barkatu, Boabdil, erabaki al duzu Mesquita non egin?

BOABDIL

Ni ere pobrea naiz, ez pentsa.

Txalo jotzen du.

Bere zerbitzaria azaltzen da.

Astotxo bat dakar (kartoizkoa da, pirrilen gainean dabil).

Boabdilen aurrean utzi eta badoa burumakurtu batzuk eginez.

BOABDIL

Hauxe izan da nire rolls royce.

AUZOTARRA 1

Honekin etorri al zara honaino?

BOABDIL

Israeldarrek jan zidaten asto zaharra, bide guztiak zekizkiena.

AUZOTARRA 2

Eta honen gainean iragan duzu basamortua? Eguzkipean?

BOABDIL

Ez, gerizpean etorri naiz bide osoan, gerizpean eta inork ikusi gabe.

AUZOTARRA 2

Ez da sinestekoa!

AUZOTARRA 1

Basamortuan inor bizi al da ba?

BOABDIL

Lehendabizi Gazara, eta gero palestinarrek egindako Gazako tuneletik Intxaurrendoraino zuzen, Euskotrenen tuneletan barrena. Gu tuneleko gizakiak gara, arabiarrek eta euskaldunak. Elkar ulertzera kondenaturik gaude: hala nahi du Alahk.

AUZOTARRA 1

Gu ez gara arabiarrek, gu berbereak gara.

BOABDIL

Bereak, barbaroak. Jatorriz aldatzea komeni zaizue.

AUZOTARRA 2

Aizu, Boabdil, ez al duzu esan israeldarrek jan zizutela bidea zekiena?

BOABDIL

Bai.

AUZOTARRA 2

Baina asto berriak ere ekarri egin zaitu.

BOABDIL

Berak ni ekarri baino, nik ekarri behar izan dut gehiagotan. Ez duzu ikusten kartoizkoa dela?

AUZOTARRA 1 (publikoari)

Motza izan behar du batek, kartoizkoa dela ez konturatzeko!

BOABDIL

Oso asto praktikoa da: ez du arrantzarik egiten. Isilean etorri naiz. Israeldarrek ezin izan naute harrapatu.

AUZOTARRA 2

Asto guztiak Intxaurrondora datozela badakigu... Ikusi, belarrik gabe utzi gaituzte. Zementu hutsa.

BOABDIL

Hala nahiko du Alahk. Edo Tel-Avivek, auskalo.

AUZOTARRA 2

Beraz, meskita bat eraiki nahi duzu hemen, gu musulman bihurtzeko.

BOABDIL

Proiektu asko dauzkat.

Jendearen aurrean paseatuz,
txilabaren azpian daukan Barçaren kamiseta erakusten du, harro:
"Qatar Foundation".
Auzotar biak, "Qatar Foundation" ikusirik, txundituta geratzen dira.

AUZOTARRA 1

Ka-tar fo-un-da-tion!!!

AUZOTARRA 2

Kátar fundeíxon!!!

AUZOTARRA 1

Aletismoko pistak kenduko dituzu Anoeta Stadiumean?

AUZOTARRA 2

Kontxa pribatizatuko duzu?

AUZOTARRA 1

Meskita bihurtuko duzu Tabakalera?

BOABDIL

Ikusiko dugu. Proiektu asko dauzkat. Bilera sekretu bat daukat bihar PROGIBELekin.

Sukaldariak, mahaiko lanak utzita.

SUKALDARIA

Progibel... Gibelaren aldeko elkarteak! Zer ideia ona! Ni GIBELaren PROFesionala naiz!

Badator Boabdilengana bera ere.

AUZOTARRA 1

Progibel?

AUZOTARRA 2

Zer da hori?

BOABDIL

Provisional Government of Igeldo.

SUKALDARIA, AUZOTARRAK

Zeeer?

BOABDIL

Igeldoko Gobernu Probisionala. Klandestinoak da oraindik, baina Igeldoren aldeko botoa emango dugu arabiarrok Nazio Batuen hurrengo Batzar Nagusian.

SUKALDARIA

Hau miseria, hau miseriaren handia! Hau tomate hidroponikoaren geza!

BOABDIL

Erabaki estrategikoak hartuko ditugu. Zumalakarregi jeneralak zuzenduko du bataila guztien ama. Fronte berri bat irekiko du Igaran seguru asko, Antigua bizkarretik okupatzeko. Hondartza behar du Igeldok.

Emakumezkoak karrosarekin, panfletoak banatzen publikoari:

"Poligamia, emakumearen esklabotza".

Boabdili ere ematen diote. Irakurri egiten du.

BOABDIL

Hau eta arraioa! Profetaren izen garbia zikintzen!

Melodia arabiar bat. Boabdilen telefonoa da, joka.

Ateratzen du telefonoa noizbait.

BOABDIL (zenbakia ikusirik)

Obama! Mai friend! Mai broder! Jaguar yu, Obama?

Batetik bestera doala bere Barçako kamiseta erakutsiz.

... Eta zure emaztea? ... Oraindik haserre? ... Eta zure alaba nagusia? ... Eta zure alaba gaztea? ... Eta gurasoak, ondo beti? ... Eta... Bai zera! ... Larria da, bai! ... O, ez, hori ezin dut! ... Beri beri beri zaila dago Siriako gatazka ... Ba niri israeldarrek astoa jan zidaten lehengo astean ... Ezin duzula ezer egin? ... Guk, lehen, kartoia ematen genien astoei jateko ... Entzun, entzun Obama, mai broder, entzun ongi: lehen kartoia ematen genien astoei jateko, eta orain astoak egin behar ditugu kartoiarekin!

Haserre, eten egiten du komunikazioa.

Lehengo lekura doa Sukaldaria, bere buruarekin hizketan.

SUKALDARIA

Kartoia, izan ere, frijitu egin liteke, egosi egin liteke, gordina ere samurra da, eta inprimatu egin liteke... "Jan nazazu nik jango zintudan bezala"... Interesgarria, txit interesgarria... Zintudan edo zintuzkedan?

Bere lan-mahaira doala, Boabdilen astoa hartu eta eraman egiten du.

Ongi lotu eta labana zorrozteari ekiten dio.

Geroxeago, astoa desagertu egingo da...

ABESBATZA

(Iparragirrereren Zibilak esan naute...)

Jekeak behar gaitu
egin musulmanak
fedeberrian gaude
sendo hitz emanak.
Asto guztiak ez daude
Igeldoko erroldan:
kartoia jatea 're
jarriko da modan.

BOABDIL

Zertan ginen?

Oraindik eskuan daukan papera seinalatzen dute Auzotarrek.

AUZOTARRA 1

Zenbat emazte dituzu zuk?

AUZOTARRA 2

Zer egin behar nuke musulmana izateko?

BOABDIL (papera kopetara eramanez, bisera)
Eta hori?

AUZOTARRA 2
Zer hori!

BOABDIL
Horko menhir berezi hori.

AUZOTARRA 2
A, ezetz asmatu zer diren menhir horretakoak!

BOABDIL
Nik esango nuke... Nik esango nuke horko horiek ez direla zaldi-hankak!

AUZOTARRA 2
Ez, ez dira zaldi-hankak

BOABDIL
Behor-hankak direla esango nuke nik!

AUZOTARRA 2
Ez ba, ez duzu asmatu!

BOABDIL
Orduan, ez dakit zer izan litezkeen.

AUZOTARRA 2
Horko horiek, asto-hankak dira!

BOABDIL
Asto-hankak!!! Ez da egia izango...!

AUZOTARRA 2
Bai.

AUZOTARRA 1
Egia berdaderoa. Mahomaren erlijioa bezala.

AUZOTARRA 2
Basamortuan kartoia jaten zuten astoen omenez egina da!

BOABDIL
Alahren bideak Euskotrenarenak baino bihurriagoak dira!

AUZOTARRA 1

Zenbat emazte eduki lezake musulman batek?

BOABDIL

Zenbat amorante eduki lezake kristau batek?

AUZOTARRA 2

Oroitzen, Boabdil, Orreagako batailan, nolako julipa eman genien nafarrok eta arabiarrok bat eginda, kristau energumeno haiei?

Telefonoak jotzen du, lehengo melodia arabiarrekin.

BOABDIL (zenbakia ikusiz)

Vladimir Vladimirovitx Púttin! ! Mai friend! Mai broder! Jaguar yu, Púttin, tobáritx?

Batetik bestera, goraki hitz eginez,
jendearen aurrean nabarmen,
tarteka txilaba zabalduz "Qatar Foundation" erakusteko:

... Pozten naiz. Eta zure nobiak? ... Oraindik horrela? ... Eta zure ama maitea? ... Eta zure aita beneragarria? ... Eta arreba disidentea, ondo beti? ... Eta... Bai zera! ... Lan du sinesteak! ... Utzi hori nire kontu! ... Igeldoren aldeko botoa segurtatua dago! ... Obama deika ari zait, bai ... Zu lasai! ... Aizu, entzun Vladimir, mai fiend, mai broder, tobáritx: ezagutzen Intxaurrondo? ... Zure zerbitzu sekretuak ez dute ongi turulatzen, Vladimir! ... In-txaurr-on-do, Basque Country, muino estrategikoa, Eroski aireportua ... Independentzia nahi dute, Igeldok bezala ... Bai? ... Askok eskertzen dizut ... Kontuan edukiko dut ... Txao, Vladimir. Besarkada.

Denak harri eta zur, noski.

AUZOTARRA 2

Zuk nondik atera duzu...?

BOABDIL

Nola ez nuen ahalegina egingo zuen alde, zuek, intxaurrondotarrok, beduinoaren asto zintzoak munduan daukan monumentu bakarra eginda gero?

Auzotarra 1 tekla zapaldu eta zapaldu ari da mugikorrean.

AUZOTARRA 2

Zer ari zara?

AUZOTARRA 1

Mao Tse Tun deika ari naiz, baina ez du hartzen.

AUZOTARRA 2

Zertarako behar duzu Mao Tse Tun?

AUZOTARRA 2

Txinak betoa jarriko duen jakiteko.

Ahaleginean segituko du, alferrik.

BOABDIL

Púttinek esan du aztertuko duela zuen eskaera. Lanean jarriko ditu diplomaziaren zerbitzu zikinak.

AUZOTARRA 1

Baina zuk uste duzu Púttin...?

BOABDIL

Zor dizkit fabore batzuk.

AUZOTARRA 1

Hau miseria! Hau miseriaren handia! Hau intxaur ustelaren nazka!

BOABDIL

Zer duzu ordea?

AUZOTARRA 2

Izan ere, guk....

AUZOTARRA 1

Guk ez dakigu zer garen gu!

BOABDIL

Erabakitzeko eskubidea duzue: intxaurrondo ala sagarrondo.

AUZOTARRA 1

Bietan ondo.

AUZOTARRA 2

Gu, zer gara, eh? Altza ala Egia?

AUZOTARRA 1

Gezurra ez behintzat.

BOABDIL

Intxaurrondo bazarete, zertarako izan behar duzue beste ezer? Leninek ez al zion independentzia eman Astigarrari? Astigarra astigarra baldin bada, zergatik ez da izango Intxaurrondo intxaurrondo?

AUZOTARRA 1

Egia da!

AUZOTARRA 2

Altzak ez du palmondoa izan nahi!

AUZOTARRA 1 (zeruan ikusiko lukeen titulua irudikatuz eskuarekin)

Islamik Republik of Intxaurrondo... Hau intxaur-saltsa jarri diguzuna, Boabdil!

ABESBATZA

(Iparragirreraren Zibilak esan naute...)

Boabdilek esan du
egia galanta
zuztarretik kenduta
gezurraren planta:
Hemengotarrak gara 'ta
ez beste inongo:
enbor bereko adarra
beti Intxaurrondo!

Sukaldaria bandeja batekin,
jendeari eskaintzen

SUKALDARIA

Kartoi triangelu kurruskariak, Kartoi triangelu kurruskariak Rifeko mendabelarrekin!

AUZOTARRA 1

Zer uste duzu zuk, astoak garela kartoia jateko?

SUKALDARIA

Hobe guk jatea kartoia, bestela gu baino hobeak hasiko dira egiten kartoiarekin.

AUZOTARRA 1

Nondik atera duzu jaki hau?

AUZOTARRA 2

Alegia, nondik atera duzu kartoia?

SUKALDARIA

Alahren bideak Euskotrenarenak baino bihurriagoak dira.

BOABDIL

Egia handia da hori!

Dastatu egiten du triangelu bat, eskultura aldera begiratzen du.

BOABDIL

Horiek, asto-hanka horiek, asto emearen hankak dira! Halako dotorezia, halako fermtasuna, hori, emetasunaren ezaugarriak dira! Emakumea, izan ere...

Musu ematen dio panfletoari.
Musua izan ote den edo musua garbitzeko erabili duen,
ikusle bizkorrek erabakiko dute.
Feministek behintzat, bolak egiten hasi dira panfletoekin...

BOABDIL

Aizue, eta nire astoa, non dago? Non dago nire astoa?

Eztulka hasten dira denak, triangeluak kontrako eztarrira joanda.
Panfleto-bolak botatzen dizkiogu ikusle guztiok Boabdili...

BOABDIL

Salam Aleykum emazte maiteok, Salam Aleykum...!

Badoa ihesi, Sukaldariak eta Auzotarrek babesten dutela.

ABESBATZA 1' 40"

(Emakumezkoak bakarrik, Hegoak ebaki banizkio...)

Intxaurrek apurtu banizkio
hantustea adio
arrak gutxi balio
baina horrela
ez zen gehiago senarra izango
eta nik
asto lana egin behar

Intxaurrek apurtu banizkio
hantustea adio
arrak gutxi balio
baina horrela
ezingo nion errieta eman
eta nik
isilik egon behar

HIRUGARREN TOPAKETA

auzotarra 2
boabdil
amazona 1
amazona 2

Amazona 2rena egin lezake Sukaldariak
Azkenean Sukaldaria agertzeko, irten liteke beste edozein.
Boabdil eta Auzotarra 2, zaborketari dabilta, pala eta erratz banarekin.
Boabdilek ez dauka kufiyarik ez aberastasun ezaugarririk: Barçako kamiseta bakarrik.

ABESBATZA

(Xenpelarren Iparragirre abila dela...)

Mundua mundu, zerua zeru
pobrea beti da pobre
etorkizunaz amets gozorik
egingo ez banu hobe.
Plazako garbitzaile
edo zikin biltzaile
aterako dut bizia
lanpostu hauxe eman didate:
zaborraren polizia.

AUZOTARRA 2

Aizu, barkatu, zu ez al zara Boabdil?

BOABDIL

Bai, hala naiz.

AUZOTARRA 2

Zer egiten du Granadako erregeak kalea garbitzen?

BOABDIL

Lorzain lanpostu bat zegoen hutsik Alhambran... Al Andaluseko Aldizkari Ofizialean irakurri nuen, eta presentatu egin nintzen. Hamalau mila ginen.

AUZOTARRA 2

Eta, zer gertatu zitzaizun?

BOABDIL

Azken frogan eliminatu ninduten.

AUZOTARRA 2

Ez da egia izango!

BOABDIL

Bai, oso arabiera polita neukala esan zidaten, baina akats batzuk egin nituen ortografian.

AUZOTARRA 2

Izugarria da, lorazain izateko akatsik gabe idaztea eskatzen dute orain!

BOABDIL

Ez, ez, ahozkoan izan zen! Ahozkoan egin omen nituen akats ortografikoak!

AUZOTARRA 2

To! Injustizia berdina munduko bazter guztietan!

Jarraitzen dute lanean, isil
Zaldi irrintzi batzuk entzuten dira

AUZOTARRA 2

Eta non egiten zenuen lana lehen?

BOABDIL

Wall Streeten.

AUZOTARRA 2

Zer, operazio txarren bat egin zenuen, ezta? Funts pozoitsuak?

BOABDIL

Ez... Zor batzuk egin nituen, pozik bizitzeko. Oso tristea da zorrik gabe bizitzea.

AUZOTARRA 2

Nik ez dakit zer den zorrik gabe bizitzea.

BOABDIL

Zeinen bizitza alaia izan duzun!

AUZOTARRA 2

Bai, izugarri alaia! Ba al dakizu hemen nola duten izena bankuek?

BOABDIL

Bankuek? Banku.

AUZOTARRA 2

Ez, hemen bankuek kutxa dute izena. Begira hor bertan, Rural Kutxa. Hortik gora jarraituta, Kutxabank. Gorago, Laboral Kutxa.

BOABDIL

Kutxa... trasteak gordetzeko leku itxi bat ...

AUZOTARRA 2

Trasteak bakarrik?

BOABDIL

Datilak ere bai, gatza...

AUZOTARRA 2

Hil-kutxa, ez dakizu zer den?

BOABDIL

Bai, badakit hil-kutxa zer den.

AUZOTARRA 2

Ba hemengo bankuek, bizirik sartzen zaituzte kutxan.

BOABDIL

Ba ote? Kartzelak dira hemen orduan bankuak!

AUZOTARRA 2

Zerorrek esan duzu!

Triste banantzen dira, nor bere aldetik, erratza pasatzen jarraitzeko.

Boabdil begira geratzen zaio Auzotarra 2ri:
zikin inbisibleak biltzen ditu, parodia hutsa da bere lana.

BOABDIL

Aizu, jakin al liteke zer biltzen duzun?

AUZOTARRA 2

Zer ba?

BOABDIL

Erratza mugitzen duzu, biltzearena egiten duzu... Eta lehengo hautsa bera geratzen da plazan.

AUZOTARRA 2

Ixo! Utzi entzuten!

Badoa lasterka ikusle multzo batengana.

Bertaratutakoan, mugimendu berdinak egiten ditu, ezer biltzeke.

BOABDIL

Ez dut ezer ikusten zure palan.

AUZOTARRA 2

Ixo!

Erne, eskua belarran, urrunekoa entzuteko.
Badoa lasterka ikusle multzo batengana.
Bertaratutakoan, mugimendu berdinak egiten ditu, ezer biltzeke.

AUZOTARRA 2

Ikusi duzu? Ez, ez duzu ikusi. Ezin da ikusi. Entzun egin behar da.

BOABDIL

Salam Aleykum esan eta gaizki begiratzen didate. Nahiago dut ez entzun zer esaten duten nitaz.

AUZOTARRA 2

Ni, zabor intangiblea biltzeko nago.

BOABDIL

Zabor intangiblea... Zer da zabor in-tan-gi-blea?

AUZOTARRA 2

Zabor ikusezina, zabor mentala...

BOABDIL

A, ulertu dut! Vladímir Vladimírovitx Puttinentzat egiten duzu lana.

AUZOTARRA 2

Eeeeez! Hitzaren birziklatze prozesurako ari naiz lanean.

BOABDIL

Ederki... Jakin al liteke zer bildu duzun oraintxe?

Pala jasotzen dio belarrira.

AUZOTARRA 2

Entzun!

BOABDIL (belarria palara hurbilduz, jendeari errepikatzen dio entzuten omen duena)

Gu beti izango gara minoria bat...

Epel hauek ez dute ezer egingo...

Ni leihoz leihokoaren alde nago...

Pintxo onik ez dago inon...

Bizikletan ez ibiltzeko eskubidea daukat...

Hondartza aspergarria da...

Ni ez naiz donostiarra...

AUZOTARRA 2

Hori dena zabor mentala da, zabor espirituala... Birziklatu egin behar da!

Badatoz Karrosakoak,
eta zaku batean sartzen dute Auzotarra 2k botatzen dien zikinkeria mentala.
Zaldi irrintziak ostera

ABESBATZA
(Iparragirreraren Zibilak esan naute...)

Hizkuntza bakarrean
zenbat hitz desberdin
belarriak garbitu
zaborrari ekin.
Denok bat e'in dezagula
zuzen eta herren
eskola eman digute
Sagasti Ederren!

Amazona 1 eta Amazona 2 azaldu dira.
Ez dute gonarik erabiltzen, jinete jantzian datoz, beren zartailu eta guzti.
Auzotarra 2 haiengana doa disimuluz.
Boabdil ere bai, geldoago.
Bisitariok oso erne begiratzen dute inguruan, eraikinetara eta hiri altzarietara...

AMAZONA 1
Hauxe dugu, beraz, Sagasti Eder printzesaren plaza.

AUZOTARRA 2
Ezin da, ez dago historikoki frogatua.

Ez diote begiratu ere egiten. Publikoari mintzo dira.

AMAZONA 1
Historikoki frogatua? Zer dago historikoki frogatua? Eneko Haritzaren ezkurak?

AUZOTARRA 2
Eneko Haritzarenak ez ziren ezkurak! Intxaurrak ziren, intxaurrak!

Ez diote begiratu ere egiten. Publikoari mintzo dira.

AMAZONA 2
Sagasti Eder printzesa, Antxo Handiaren alaba, Nafarroako eta Bizkaiko erregina izan behar zuena.

AMAZONA 1
Napoleonek amorante hartu nahi izan zuena!

AMAZONA 2
Del Burgo zaharrak moja sartu nahi izan zuena!

AMAZONA 1

Urralburuk usteldu nahi izan zuena!

AMAZONA 2

Patxi Zabaletak....

AMAZONA 1

Ixo! Vardulia traidorean gaude! Kontuz ibili behar dugu.

AMAZONA 2

Sagasti Eder plaza bat Vardulia traidorean hiriburuan! Ez al da zo-ra-garri-a?

Boabdilek lan egiteari utzi eta kokotsa erratza gainean duela
emakumeen jardunari erreparatzen dio.

AMAZONA 1

Hau izango da gure plaza gotorra Vardulia traidorean.

AUZOTARRA 2

Plazandreok kakoan utzi dute gona.

AMAZONA 1

Eta ideia bat kaskoan etorri gara hona.

AUZOTARRA 2

Zuek ideia, eta nik testosteroná.

Badator Boabdil zikinkeria mental hau jasotzera.

AMAZONA 2

A, gizajoa! Nongoa ote zen hire amona!

AMAZONA 1

Honi errazio doblea eman zioten astazakilen hormona.

Auzotarra 2k ez daki nola jarraitu errima lehian.
Urduri, telefonotik deitzen du.

AUZOTARRA 2

Amets Arzallus?...

AMAZONA 2

E, hori geurea da! Eten segituan.

Obeditu egiten du, kikilduta.
Telefonoa markatzen du...

AUZOTARRA 2

Maialen? Maialen Lujanbio?...

AMAZONA 2

E, hori ere geurea da!

Obeditu egiten du, are kikilduago.

Telefonoa markatzen du...

AUZOTARRA 2

Joxe Manuel? ... Lujanbio, Joxe Manuel Lujanbio. ... Txirrita, horixe! ... A, ez? Barkatu, barkatu. Gaizki sakatuko nuen.

Itzali egiten du, nolako porrota.

Boabdili eskatzen dio laguntza...

Ezin diozu deitu Angela Merkeli? Edo Michelle Obamari?

BOABDIL

A, lankide tobaritx, mai friend, mai broder! Ni ez naiz jadanik Boabdil!

AUZOTARRA 2

Ez?

BOABDIL

Ni Mohamed naiz.

Amazonak, bitartean,

Sukaldariak ekarritako kartoi triangeluak jango dituzte estilo sofistikatuan.

AUZOTARRA 2

Mohamed?

BOABDIL

Fartsa guztietako arabiar ergela.

AUZOTARRA 2

Etorkin ilegala?

BOABDIL

Oker guztien susmagarria! Errudun ideala!

AUZOTARRA 2

Eta Aladinoren lanpararen bat ere ez daukazu, sikiera?

BOABDIL

Esan dizut, zu bezalako ergel bat naiz.

AUZOTARRA 2

Noski, noski...! Zeeer? Zer esan duk?

Mehatxu egiten dio erratzarekin, eta Itzuli batzuk egiten dituzte bata bestearen atzetik,
nekatu eta elkar besarkatu arte

AMAZONA 1

Ez baldin badakizue, jakin ezazue gu SEGAKo ordezkariak garela.

AUZOTARRA 2

Hau miseria, hau miseriaren beltza! Hau bertsolaritzaren miseria!

BOABDIL

Sega esan du. Euskal gillotina da hori.

AUZOTARRA 2

Sega, esan duzu? Horixe behar dugu! Ideia ona! Lau mila lepo ordu betean!

AMAZONA 1

SEGA, Sagasti Ederren Gorteko Amazonak.

Karrosatik, badatorrela, interpelazioa.

KARROXA

Sega? Itxaron, itxaron hortxe!

Heldu dira.

Liburutzar bat kontsultatzen du Karrosakoak.

Ea, kontsulta dezadan... SE, SE, SE... Hemen ez da ageri SEGA elkarterik! Ez zaudete alta emanda.

AMAZONA 2

Alta emanda? Probintziano ez bertzea! Alta emanda zakurrak egoten dira.

AMAZONA 1

Guk geure legalitatea dugu.

AMAZONA 2

Forala, korala eta morala.

Auzotarra 2 eta Boabdil, horrelako hitzak entzunda, zabor morala biltzera datoz, bere mugimenduak egiten dituzte amazonen inguruan.

Berdin jokatu dute hemendik aurrerako pasarteetan, komeni denean.

Amazona 1ek Koldobika Jauregiren monolitoari begiratzen dio erne...

AMAZONA 1 (zartailua Auzotarra 1engana noratuz)
Zu, probintziano ez bertzea, zatoz.

Hurbiltzen da Auzotarra 1, ikarati,
erratza jasoz badaezpada, zartailuaren zigorkadak ekiditeko edo.

Zer da hura?

AUZOTARRA 1
Guk ez genuen jarri, udalak jarri zuen....!

AMAZONA 1
Udalak paratu zuen, baina zuek ez duzue bota!

AMAZONA 2
Erran, zer egiten du sinbolo faliko horrek hor!

Boabdilek barre egiten du bare kolkorako, istilutik urrun

AUZOTARRA 2
Baina... Baina... Guk ez genuen uste hori...

AMAZONA 1
Zuek ez zenuten uste, baina sasian masuste.

AMAZONA 2
Sinbolo falikoak hemen, Sagasti Eder printzesaren plazan!

AUZOTARRA 2 (urduri)
Baimena behar da, eta baimena lortzeko Gobernu Batzaren gehiengoa lortu behar da,
eta udal araudiaren arabera, gainera...

BOABDIL (publikoari)
Printzesa esan du, Sagasti Eder printzesa. Ni Granadako Erregea nintzen garaikoa!

AMAZONA 1
Hori suntsitu egin behar da berehala!

AUZOTARRA 2
Suntsitu?

AMAZONA 2
Birrindu, txikitu, porrokatu!

AMAZONA 1
Lurrarekin berdindu!

ABESBATZA

(Iparragirrereren Zibilak esan naute...)

Goizean jaiki eta
joan zaigu izeba
ederki zorroztuta
eraman du sega.
Erresumatik irtenda
jo du probintzira
Vardulia biltzeko
bere iritzira.

KARROXA

Barkatu, baina Sagasti Eder ez da printzesa, baserri baten izena da.

AMAZONA 1

Hain zuzen! Baserri hori Sagasti Eder printzesaren gaztelua zen!

AMAZONA 2

Non da baserri hori!

KARROXA

Bota egin zuten!

AMAZONA 1 (publikoari)

Bota egin zuten, Sagasti Ederren gaztelua!

KARROXA

Ez, Sagasti Eder baserria bota zuten.

AMAZONA 1

Nafarroaren konkistak jarraitu egiten du! Vardulia beti traidore!

KARROXA

Hementxe: Sagasti Eder. Caserío.

Amazona 1ek kendu egiten dio liburutzarra.

AMAZONA 1 (publikoari)

Sagasti Eder. Caserío. Arrasado por expropiación del Ministerio de la Vivienda... Zer erran nahi du horrek? Zer erran nahi du?

AMAZONA 2 (publikoari)

Etxeak egiteko bota zutela baserria!

AMAZONA 1 (publikoari)
Sagasti Ederren gaztelua zena!

AMAZONA 1 (publikoari)
Bi mila deabruren kiratsa! Konturatzen al zarete non bizi zareten?

AMAZONA 2 (publikoari)
Etxebizitza Ministerioak suntsitu zuen gure printzesaren gaztelua zuei etxebizitzak eraikitzeko!

AMAZONA 1 (publikoari)
Inbaditzaileak zarete!

Horrelakoak errepikatuz, zartailuekin joka bezala egiten diete karrosakoei,
alde eginarazteraino...
Bitartean Boabdil telefonoz, Auzotarra 2k harrituta begiratzen diola.

BOABDIL

Florentino, amigo, laguna, bihotzeko aurkaria, jauntasunaren eta joko garbiaren lehendakaria! ... Aspaldikoa ... Zer moduz mesetan? ... Eta Ronaldo? ... Eta Bale? ... Eta Benzema?... Eta Casillas, zer moduz Casillas? ... Ongi, ongi ... Begira, badaukat negozio bat ... Oso negozio segurua ... Sinbolo zatar bat bota eta jauregi bat eraikitzea ... Qatar estiloan, bai, printzesa baten jaiotetxea izan behar du, eraikuntza internazionala! ... Qatar dago atzean, bai ... Baldintzak ikusiko ditugu datorren astean ... Non esan duzu? ... New Yorken? Ez, hor ezin dut azaldu. ... Ados, Txistu jatetxean orduan.

Auzotarra 2, buruari hazka eginez, Amazonengana.

AUZOTARRA 2
Barkatu baina, pentsatzen egon naiz...

AMAZONA 2
Seguru?

AUZOTARRA 2
Zer egiten zuen hemen Nafarroako Erregearen alabaren gaztelu batek? E? Nor da inbaditzailea?

AMAZONA 1
Baina zer diozu! Nafarroako Erresuma zen Gipuzkoa osoa!

AMAZONA 2
Eta Frantzia erdia!

AUZOTARRA 2
Bizkaiko Golkoa ere bai?

AMAZONA 2

Pirinioetako Nafarroa, Kantauriko Nafarroa eta Erriberako Nafarroa, horra Nafarroaren hiru puntu kardinalak.

BOABDIL

Barkatu, baina puntu kardinalak lau dira.

AMAZONA 2

Kardinalak Vatikanora! Eta puntuak zure buruko pitzaduran!

AMAZONA 1

Lasaitu gaitezen... Ni ere pentsatzen egon naiz...

BOABDIL (publikoari)

Historia eraiki behar da! Eraikuntza! Eraikuntza internazionala!

AMAZONA 1

Sagasti Eder suntsitu egin zuten. Baina geratuko dira nonbait sagastiak.

AUZOTARRA 2

Sagastirik ez dago, ez sagasti ederrik ez sagasti itsusirik.

AMAZONA 2

Intxaurrenondoak landatu dituzue sagarrengoen ordez!

AUZOTARRA 2

Ez, intxaurren ere ez daukagu.

AMAZONA 2

Nola liteke! Taberna hark, Intxaurren du izena!

AUZOTARRA 2

Gure intxaurren galduen omenez. Eta Sagasti Eder, gure sagasti eder galduen omenez ipini genion plazari.

AMAZONA 1

Hitzetan bizi zarete!

BOABDIL

Baina hitz birziklatutan, aizu.

Sukaldaria erdira

SUKALDARIA

Intxaurren eta Sagarra, konbinaketa berria! Interesgarria! Interesgarria benetan! Fruta berri bat: sagarrintxaurren!

Telefonoa sakatuz:

Patenteak eta markak? Bai, denominazio bat erregistratu nahi nuke...

AMAZONA 1

Begira zuen memoria zertan den: hidrogenoz egindako fruitu bat.

AMAZONA 2

Zementuz betetako plaza bat.

AUZOTARRA 2

Intxaurrondo Zahar, han behean dago!

BOABDIL

Nortasun berri bat da gurea.

AUZOTARRA 2

Haiek intxaurrondo, gu sagasti.

BOABDIL

Haiek trena, guk metroa.

AUZOTARRA 2

Barkatu, topoa.

BOABDIL (publikoari)

Entzun intxaurrondotarrok, Alam Saleykum! Intxaurrondotarrok, zernahi duzue nahiago, Alderdi Eder ala Sagasti Eder?

JOKARI GUZTIAK

Esan, publiko maitea, entzule zoragarriok! Zer duzue nahiago, Alderdi Eder ala Sagasti Eder?

ABESBATZA

(Hegoak ebaki banizkio...)

Nafarroan sortu da printzesa

lo luzeko ametsa

tramankulu traketsa

Sagasti Eder

gure plazako erregina

gezurrak

birziklatuz egina.

Espero genuen amazona

Nafarroako madona
guztion zoriona
Sagasti Eder
zara eta izango zara
zu beti
Intxaurrondon printzesa

Badator Sagasti Eder, San Joan sutarako panpina bezalako, karroxan.
Sagar tarta puskak, intxaurrak, ziririkuak, confettiak, txaranga...
Erregina ipini eta neska-mutildantza edo antzeko zer bait.

Dantzariak, behar izanez gero,
egin dezakete, fartsaren hainbat unetan,
segurtasun kordioaren papera biribilean dantzatzuz...